

# Apunte solte batzuk pandemiaren gainean

URRUTIKO HOTSAK, oso urrutikoak, hasi zitzaizkigun iristen, eta urrutitik, oso urrutitik entzuten genituen, indiferentziaren distantziatik, nagusitasun-usteak ematen duen laneza inozotik. Hamar egunetan ospitale erraldoi bat eraiki zutenean, harritu egin ginen, baina harridurak ez zitzaizkigun indiferentzia eta handiki-ustea gainetik kendu. Bo, txinatarrak! Tragedia, auskalerrietako urrutian. Eta txisteak egiten genituen. Pixkanaka, urrutiko hotsa hurbiltzen hasi zen, eta aurki ikusi genuen han urrutian



**HIRUKO (H)ITZA**  
Anjel Lertxundi

bazekitela hemen hurbilean baino efikazagoak izaten. —Apaltasun pixka bat, konpail, entzun genuen han urrutiko balakoiren batetik.

Ukabilkada lehorra sentitu genuen gure sabel-zulo hantustez asean, eta Mendebaleko harro-hatsa galtzen hasi ginen globo puztuari korapiloa askatzen zaionean bezala.

PANDEMIA HITZAK (*pan* eta *demos*) herri osoa esan nahi du. Hitza ulertzen eta erabiltzen dugun eran, pandemiak osasunarekin du zerikusia, baina, praktikan, *herri osoaren egituraketa* osoa harrapatzen du: herriar asko kutsatzeaz eta hiltzeaz gainera, herriaren bizimodu osoa iraultzen du, bizitza publikotik hasi eta etxe barruko intimitatearaino; ekonomia eta etikari eragiten die; izuari zein solidaritateari; eskolari bezala aisiari: ez dago giza bizitzaren geruzarik pandemiak afektatzen ez dionik. Pandemiak batek giza aktibitate guztien sare trinkoari eragiten dio, arrisku bizian jarriz gizartearen oinarri zibilak berak ere.

Lekukoak gara, bete-betean harra-patu gaitu.

Planeta osoa hondatzen eta hondatzen jarduteraino gara handi, itsu eta harro. Pandemiak batek etorri behar izan du zein txikiak garen esatera.

ORGATXO BATEN GIDAN atsedean hartuta, agurreari otu zaio egunetik egunera ilara ez ote den

laburragoa. Dardara hotza sentitu du bizkarrezurrean beheara. Dendan sartzeko txanda. Orgari bultzaka, hartu du hau eta hartu du bestea, bete du orgatxo, eta, txirri-txarraka, etxera itzuli da. Hozkailua betetzen hasi da. Kolpean, giltza sentitu du sarrailan. Norbait kanpotik etxeko atea ixten! Ahal duen lastarren joan da ateraino. Behatxulotik begiratu du.

—Ni naiz, aita, dena ondo?

BIRUSA EZ DA SOZIALA, politikoa, humanoa, baizik natura baino ez. Ez dauka diskurtsoz, sentimendurik, etikarik: bere erremua ez dago gaizkiaren eta ongiaren terrenean. Etorri da, jo gaitu. Inolako motiborik gabe, oraindik ezagutzen ez dugun mekanismo batek aktibatuta. Guk, sozialak, politikoa, humanoak baikara, gure ideietara eta komenientziara ekarri nahi dugu. Merezki genuen zigorra!, dio masokistak. Jauna, zer egin dugu gaizki?, moralistak. Asko ikasten ari gara, optimistak. Galdu gara!, pesimistak.

Gaixo, erizain eta medikuek ez dute ondorioz atertzeko ez astirik, ez kemenik. Askitik gora lan dute aurrean daukaten gaixoa zaindu eta animatzen.

Zer nolako zilegitasuna dugu guk, naturarekin zer egiten ari garen jakinda, naturari eskatzeko errukitzeko gurekin?

ISOLATU GAITUZTENEAN ikusi dugu garbien taldean garelako: gizarteak guk egiten dugu, gizarteak gu egiten. Gogoan gordetzeko da orain bi igandeko berripaper honek oparitu zigun Xabier Gantzarainen Atze-

ko *balkoian* artikulua. Honela dio, besteak beste:

«Margaret Mead antropologoari ikasle batek galdetu omen zion: zein da humanitate zantzurik zaharrena? Ikasleak espero zuen gezi baten punta [...] baina erantzuna beste hau izan zen: femur hautsia eta lotua».

«Femur hautsiak, naturan, heriotza esan nahi du. Ezin du ihes egin, ezin du ur bila eta janari bila joan. Harraparien bazka bihurtzen da. [...] Femur hautsi gero lotuak esan nahi du beste pertsona batek zauritua artatu zuela, zauria garbitu ziola, zaindu egin zuela [...]».

«DENA BERTAN BEHERA, dena etenda, dena ez: langileek lanera joan behar dute. Ez dakit kapitalismoaren argazki zehatzagorik ikusi dudana aspaldian». Gantzarainek artikulua berean.

GAURKO UMEEK inork aurreikusitako gabeko oroitzenak gordeko dituzte memorian. Isolamenduan oinarritutako oroitzenak hitz eta hotsen bilduma halako bat. Umeek gurasoei ahapeka entzundakoak, gurasoek umeei sekula esango ez zitzaizkionak pandemia izan ez balitz, inoiz egin gabeko konfidentziak...

Izuaren lanbro zerratu bezain ikusezin bat Hondamendi Handiaren garaiko argazkietan.

AGURE EZAGUN BATEK lagun bati was-hapez: gazteak gugatik apartatzen omen dituk gugandik!

Pandemiaren segari edadetuon lepoak zaizkio nonbait atseginenen. Naturaren beste kapritxo bat. Zertarako atsekabatu erremediorik ez duenarekin? Henning Mankell idazleak minbizi erremediorik gabe diagnostikatu zitotenean: «Duintasunari eutsi eta lasai egoteko argumentua da nik ez ditudala hamazazpi urte, ez naizela hilko benetan bizitzen hasi baino lehen. Hirurogeita sei urte ditut, planetako gehienek amestu ere ezin duten baino gehiago bizi izan naiz».

EUROPA INDARTUKO ZELA uste zuen ilusioaren mapak. Europa, ordea, erkindu egin da, nanotu. Estaturik gabeko nazioak, ahuldu. Gizendu den bakarra, estatu zentralisten gose asezeina.


BIZARRA EGIN eta harrikoak, lixiba egin eta arropa eseki, erratza pasa eta loreak zaindu... Bakarrak nagoen arren, birusa engainatzen saiatu...

DANIEL DEFOEREN *Izurriaren urteko egunkaria*, Thomas Mannen *Mendi magikoa*, Albert Camusen *Izurria*...

Egunotako zerrendetan ikusi ez dudana Cormac McCarthyren *Errepidea* (The Road). Nobela distopiko bat: aita-semeak autopista batean, katastrofe kimiko baten ostean. Irakurle, izuak barrua hartzen dizu estu-estu; galderek, burua. Istoriak ez zaitu uzten nobela irakurri eta handik urte dezentera ere. Adibidez, pandemia baten erdian.

BALKOTIK BEGIRA. Oso antena luzea jarru dute pareko etxean. Estilizatua da. Gezi bat auskalorantz. Zer jasotzeko, norekin komunikatzeko? Ez da kaioen kurrixkak beste hotsik entzuten. Zeru-sapa, izu koloreko.

Katu bat igo da teilatura eta, nagieria aristokratiko batez, antenaren ondotik pasatu da haren distirei erreparatu gabe. Teila beroen gainean etzan da. Han segitzen du.



EIDER EIBAR